

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

331 - 2025eko ILBELTZA



MUSIKA,
HARREMANEN
HAZIA



Rural Nav eta Mendialdeko aktibazioa

Cederna Garalur elkarteak, NUP, INTIA eta Sustraiak Habitat Designekin elkarlanean ari da, RuralNav 2024 lankidetzak (TEDER, EDER, ZONA MEDIArekin batera) proiektuaren baitan, nekazaritza-elikagaien enpresa txikien ekoizpen arduratsua eta jasangarria areagotzeko. Proiektuaren helburu nagusia, despopulazioari aurre egitea eta landa-eremuetako erronka demografikoei irtenbidea ematea dira, eta honen baitan Mendialdeko eta Baztan-Bidasoko nekazaritza-ustiategi txikien ekoizpen-ahalmena handitzea da, modu horretan tokiko eskaria produktu hurbilekin hornitzeko.

Mendialdean, Ekimen hau Aktibazioa Sozioekonomikorako Planaren barnean kokatzen den elikadura-sistema osasun-

tsu eta jasangarriak sustatzera bideratutako sektorean dago, bi helburu nagusirekin: Nekazaritza-elikagaien sektorearen lehiakortasuna eta errentagarritasuna hobetzea, eta ekoizpen ekologikoa eta kontsumo-ohiturak aldatzea eta sustatzea.

Gainera, egitasmo honen bidez lehen sektore dibertsifikatua bultzatu nahi da. Horrela, inguruko klima, orografia eta lurzorua ezaugarrietara egokitutako ekoizpen jasangarria sustatzeko. Helburua inguruko nekazariak eguneroko dietarako beharrezkoak diren elikagaiak modu jasangarrian ekoiztea eta, aldi berean, ingurumenaren errespetua bermatzea da. Honetarako Mendialdean, Larraun eta inguruko udalerrietan (Larraun, Lekunberri, Leitza-Ezkurra, Imotz, Basaburua) 2024an

NUPeK lurren azterketa (7 partzeletan) burutu zuen uztailetik aurrera eta INTIAk aholkularitza eman zuen ekainetik azarora arte (5 partzeletan).

Mendialdean, azterketa eta aholkularitza eman zitzaizen ekoizpen dibertsifikatua eta batez ere frutagintza eta baratze-gintza ekologikoan ekoiztu eta produktuak merkaturatze zirkuitu laburren bidez saltzeko asmoa zutenei.

Lurraren azterketa

Lurzoruak mantenu-gaiak, ura eta airea ematen dizkie landareen sustraiei, eta horrek baldintzatzen du, neurri handi batean, lurraldearen produktibitatea. Lurzoruak beste funtzio batzuk ere betetzen ditu, hala nola substantzia asko biltegitzea karbono barne, zeinak funtsezkoak dira ekosistemen biziraupenerako, landa-ingurunean bizi diren pertsonentzat eta, oro har, gizateriarentzat. Lurzorua baliabide natural ez-berriztagarria denez, ondo definitu beharko dira lurzoruari ematen zaizkion erabilerak,

Mendialdean, lurzoruen ezaugarrien arabera, kalikata edota zundaketa egin eta lurzorua inguruko hainbat informazio aztertu dituzte, hala nola, terrenearen morfologia, klima, hezetasuna, geologia, lurraren erabilera, lurraren profilararen deskribapena, analitika fisiko-kimikoak, metal astunak, besteak beste. Honek aztertutako lurzoruetan barazkigintza edota frutagintzarako egokiak direnaren emaitzak ematen ditu eta bestetik nekazaritza ekologikorako gaitasuna. Orokorrean, datuek partzeletan barazkigintzarako egokiak zirela agerian utzi zuten, horietako batzuk frutagintzarako ere eta partzela pare bat kenduta, nikela delako metal astunagatik, nekazaritza ekologikorako egokiak direla

Aholkularitza eta elkarlana

INTIAk lurzorua kudeaketa jasangarria sustatzeko aholkularitza teknika eskaini du. Barazkiak eta fruta-arbolak lantzeko barietate egokiak proposatu dira, kontrol biologikorako estrategiak, lurraren emankortasuna hobetzeko maneiua, baita ureztatze sistema ere. Gainera, nekazaritza ekologikoan interesatuta dauden pertsonen esperientziak, materialak eta baliabideak elkarbanatzeko sare bat sortzeko interesa adierazi dute, eskualdeko garapen sozioekonomikoa indartuz.



· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkartea.
L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Ainhoa Beraza, Aitor Irastorza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandezena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:

Ainhoa Beraza, Ainhoa Saralegi, Amaïur Unzueta, Araxes Kirol Taldea, Aritz Gorostiaga, Garazi Moreno, Juanmari Irastorza, Leire Satrustegi, Lekunberriko Udala, Nerea Mazkiaran, UEMA, Korrontzi musika taldea.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103
- mailope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Noé Lopez Albizu

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

02

CEDERNA-GARALUR

04

KUXKUXEAN Zorion agurrak

07

MAITE DITUT MAITE
Aldazko Baso Magikoa

8

ERREPORTAJEA
"Fanfarrea ez da soilik musika talde bat, elkarlanaren zati bat da"



11

ELKARRIZKETATXOA
"40 urte daramatzat Lekunberriko Klaratarren Komentuan" Natividad Etayo Flores (Lekunberri), Klaratarren Komentuko ahizpa.



12

BATZARRE

14

ELKARRIZKETATXOA
"Boluntario sare baten bidez, Lekunberri eta Larraungo adineko jendearen bakardadeari aurre egin nahi diogu"



19

KULTURA

21

ERREPORTAJETXOA
Mari Domingi eta Olentzero, beti bezain eskuzabal!



25

KIROLA
Araxes Kirol Taldeak historia egin du



28

PLAZATIK PLAZARA
"UEMAk onartu du Lekunberriko udalaren eskaera" Juanmari Irastorza Garaño (Lekunberri), EH Bilduko zinegotzia.



31

AGENDA



Eñaut Garmendia Aristi

Urtarrilaren 4an, 7 urte.
Zorionak, Eñaut! Zenbat
handitu zaren! Egun polita
pasa eta segi holaxe, beti
bezain jator. Asko *matte*
zatteu. Mila musu famili
guztiaren partez.

**Ane Amoztegui Goikoetxea**

Ilbeltzaren 13an, 6 urte betetzen
dituzu. Eta a ze 6 urte! Segi gure
bazterrak alaitzen. Zorionak eta
musu handi bat etxeko guztien
partez.

Mikel Aldareguia Mateo

Urtarrilaren 9an, 8 urte.
Zorionak, eta ongi pasa
zure egunetan. Musu
handi bat, aitatxo eta
amatxoren partez.

**Unai Argiñarena Saralegi**

Ilbeltzaren 16an, 10 urte.
Zorionak, eta urte askoz
mattea. Jarraitu orain arte
bezala etxea alaitzen!
Muxu potolo bat denon
partez.



Mailope aldikaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu **mailope@labrit.net** e-postara hilaren
20a baino lehen.

**Javier Aristi Alustiza**
- Goian bego -

Javier Aristi Alustiza, 74 urtekin, abenduaren 2an hil zen. Bere heriotzak guztion bihotzak geldiarazi ditu une batez. Javier Aristik laguntza abegikorra eskaini zuen bere bizitza guztian zehar eta eskainitako maitasuna askoren bizimoduaren parte izanen da beti. Familiak har ditzala gure doluminik zinezkoenak.

Bere oroitzapena gure artean bizirik mantenduko dugu.

**SOTIL GARAJEA****BETELU**

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



948 85 32 79

SAN MIGUEL

Taberna-Jatetxea

Arribe

948 51 31 34

**Lagunasesoria S.L.**

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...


W/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.



Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



INTERNET MOZKETAK HAIZE BOLADEN ONDORIOZ

Azken hilabeteko eguraldi txarrak eragina izan du telekomunikazio zerbitzuetan eta gure eskualdeko herritar askok arazoak izan dituzte internet eta telefono konexioarekin. *Jazztel* konpainiak adibidez, zerbitzu etenaldiak eta gatazka teknologikoak izan ditu Lekunberri eta Larraunen, batez ere haize boladen eta elurteen ondorioz izandako kalteengatik.



LEKUNBERRIKO HILTEGIKO APARKALEKUAN HOBKUNTZAK

Azaroaren 26an hasi ziren Lekunberriko Hiltegiako aparkalekua berritzeko lanak eta eremua egun batzuetan itxita egon zen. Berrikuntza honen bidez, lurzorua asfaltatu, aparkalekuak berrantolatu eta irisgarritasuna hobetu da, herritarrei zerbitzu erosoagoa eta egokiagoa eskainiz. Obraren kostua 51.988 eurokoa izan den del aurreikusitako da.



PILOTA ESKOLAKO SASKIAREN IRABAZLEA

Abenduaren 24an egin zuten Larraun Pilota Eskolako saski erraldoiaren zozketa. Mari Domingi eta Olentzeroren artean hartu zuten 3611 zenbaki saritua.

Beraz, Ana Isabel Ojer izan zen saritua eta Jorge Galarza Berasain joan zen sariaren bila. Saskian dauden produktu guztiak agortzeko nahiko lan izanen du familiak orain!

► Beñat Goikoetxea (Atallu)



Bertso bat idatzi behar datorren Mailoperako gaia zein izango dudan ezin aukeratuz nago.

Trump, Gaza, Dana, Aldama Gabonak eta gehiago entzun ez duzuen zerbait kontatzerik ba al dago.

Atzorako zen bertsoa hasi behar nun lehenago ideiak ezin lotuaz frustratua naiz zeharo.

Denboraz larri nabil ta zertako joan harago, urte berri on denontzat zer ospatua badago!

Doinua: Habanera. Hurrengoa: Mikel Zurutuza (Atallu)

PRINTZA, 2025ERAKO PREST

Printzako lagunek azken urte honetan egindako lana benetan aipagarria izan da, eta gorabehera ugari gainditu ondoren, indarberrituta jarraitzen dute beren bidean. 2024ari agur esateko eta haien eskerrak adierazteko, ondorengo hitzak partekatu dituzte:

“Gero eta desmobilizatuago dagoen gizarte honetan, dagoena onartu beharrean iraultzaren txinparta indartzeko lanean jarraitzen du Printzak”. Palestinarren sarraskiaren mugarriz izatea egokitu zaion 2024ak ere, hainbat bizipen eta ikaspen eman dizkigu, atzera begiratzean, egindako ibilbidearen meritua sentituz.

Eguneroko dinamikaren parte diren baratza, musika, hausnarketa, elkarbizitza eta abarrez gain, hainbat ekimenen antolakuntzan jardun dugu gaituriko urtean ere. Era guztietako eskaintzak izan dira publiko ezberdinei bideratuak. Etxeko idazle Irati Morenoren lehen liburua aurkeztu zen bertan, Bardoak taldekako bertso ekimenaren aterpe izan zen, festetako pailazo ikuskizunaren kokaleku, Reikia zer den hobeki ulertzeko abagune... eta nola ez, ikasi eta gerriei


hautsak kentzeko, hitzaldi eta kontzertuek ere izan dute toki Printzan. Talde lanaren bidez, teoriatik praktikara daramatzagu ekintzak eta aurrera jarraitzeko konpromezuak gero eta sendoago darrai. Bosgarren urteurrenaren ospakizuna izan zen horren testigu.

Badira haizea kontra jartzen duten indarrak ere ordea. Estatuaren autoritarismorako joera, jokabide erreakzionarioen gorakada, diskurtso arrazisten hedapena edota pobrezia kriminalizazioa ere. Ezin aipatu gabe utzi, okupazioaren kontrako neurri berriaren onarpena Espainiako Kongresuan, euskal alderdi instituzionalen aldeko bozkarekin. Urte berri honetan ere bide beretik jarraituko dugu Printzan eta eragile zein norbanako orori, bertan antolatzen ditugun ekintza desberdinetan parte hartzeko gonbidapena luzatzen diegu.”

Printza Gune Autogestionatua



Bardoak taldekako bertso ekimena



Aroa Arrizubieta eta Amets Arzallus bertsolariak



Zapotxin pailazoaren ikuskizuna



Etxekalte taldearen kontzertua



Ibil Bedi taldearen kontzertua



Kaña fest ekitaldia



TALLERES GOÑI
TALLERRAK



TALLERES GOÑI
CHAPA Y PINTURA



- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN



680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM

Hurrengoa:

Maria Eguzkiza (Albiasu)



**Maialen Moreno
(Aldatz)**

maite ditut maite gure bazterrak

Aldazko Baso Magikoa

Ibilbidea: zirkularra

Distantzia: 3,45km

Desnibela: 634 m- baxuena
eta 730m altuena (104m
desnibela)

Zailtasuna: erraza



Bidea:

1 Aldatzen amaieran, Berueterako errepidea hartu baino lehen, eskuinera abiatuko gara, erreka igarotzen den pista jarraituz. Aurrera jarraituko dugu Ontxaloneako baserrira iritsi arte. Hortik berriz ere aurrera jarraituko dugu (ezkerreko bidetik), "baso magikora" iritsi arte, Goldaratzeneko bordara arte, hain zuzen ere.



2 Bordako pista jarraitu beharrean, baso horretatik murgilduko gara, eta hasieran dagoen ezkerreko bide txiki eta sasitsu baten bitartez gorantz abiatuko gara.

3 Bide sasitsua igaro ondoren, ikusiko dugu pista txiki batean agertuko garela, eta hortik ezkerretara joango gara. Mitoneko borda igaro eta berriz ere aurrera ekingo diogu bideari.

4 Pista horren amaiera argi ikusiko dugu. Izan ere, Berueterantz abiatzen den errepidean amaituko da (Asku bidea hain zuzen ere). Errepidea gurutzatu, eta parean dagoen beste bidera sartuko gara, Errotazarko errekek bertatik jarraitzen duen bidea esaterako.

5 Gorantz egingo dugu bideari jarraituz, Paskoaneako borda ikusi arte, eta eskuinera abiatu beharko dugu aurrera jarraituz, bidegurutze bat topatzeraino. Adi hemen! Aurrera jarraitu beharrean, ezkerreko bideari ekingo diogu, aldapan gora hain zuzen ere.

6 Azkenik, dena zuzen jarraituta eta zenbait zelaien goiko aldetik igarota, paregabeko Aldatz herriko bistak ikusiko ditugu. Beherantz egingo du bideak, pista handiago batera iritsiz. Bertan bidegurutze bat ikusiko dugu; ezkerretara joan, eta Igoanea, Errandonea, Martitxonea sagardotegia eta Mikelenea igarota, Aldatzeko iturrian amaituko dugu.



- Idoia Garmendia, Mirentxu Eskamendi, Adur Cobos, Urko Gorostidi, Yolanda Eskamendi, Maria Angeles Urrizalqui, Josune Ochotorena, Angel Rekalde eta Ramon Ascaray, Beteluko fanfarreko musikariak.

“Fanfarrea ez da soilik musika talde bat, elkarlanaren zati bat da”

Aurten, Betelun inoiz izan den lehen fanfarre taldea sortu da abesti tradizionalak jo, praktikatu, eta aldi beran bertako musika maitaleen harremanak indartzeko. Proiektu berezi honetako kide bakoitzak bere doinua eskaini, eta bide batez, herriko kalejirak eta ekitaldiak musika eta alaitasunez betetzeko aukera zabaldu du.



1 Idoia Garmendia, Mirentxu Eskamendi, Adur Cobos, Urko Gorostidi, Yolanda Eskamendi, Maria Angeles Urrizalqui, Josune Ochotorena, Angel Rekalde eta Ramon Ascaray, Beteluko fanfarreko musikariak eta Leire Satrustegi irakaslea.

Betelu eta Araitz ibarreko musikak kulturaren oinarri sendoa osatzen du, denboran zehar festa eta ospakizunetan funtsezkoa izan delako herriaren identitatea eta kulturaren ondarea mantentzeko.

Araitz ibarrean, adibidez, musika tradizionalak beti izan du presentzia handia, bereziki herriko festetan eta ospakizunetan, baina baita eguneroko bizitzan ere. Azken urte hauetan txistua eta akordeoia izan dira ekitaldi kultural gehienetako laguntzaile nagusiak, Araitz-Beteluko Kulturaldian adibidez, antolatutako musika eta dantza jaialdiak eskualdeko kultura eta musika tradizioak bizirik mantentzea ahalbidetu du, eta horrek herriko bizitza soziala eta kulturala aberastu ditu.

Fanfarre honek herriko kultura musikari osagarri berri eta berezi bat es-

“Fanfarrearen lehen agerraldia azaroaren 30ean izan zen”

KOTXERA
Taberna Jaletoz Alf Brasa

Antsoenea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

TAXILON
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Atallu - Araitz
Lontxo Otamendi Artola

kaini dio, izan ere, eskualdeko bederatzi musikaririk osatzen dute, melodia tradizionalak interpretatzen dituzte eta kalejiretan eta ekitaldi komunitarioetan jotzeko prest daude. Gainera, bertako herritarrek diotenaren arabera, fanfarre honek alaitasunez betetzen ditu Betelu eta Araitz inguruko kaleak, eta, musikaz gain, elkarlana uztartzen du herriko tradizioaren eta modernitatearen arteko nahasketa interesgarria izanik.

Betelu eta Araitz haraneko musika historia, beraz, harremanen adierazlea da. Belaunaldi ezberdinen joan-etorriek musika tradizioa bizirik mantentzea lortu dute, eta baita egungo garaietara egokitzea ere, belaunaldiz belaunaldi transmisioan oinarrituz.

Gogoia, doinuaren iturri

Bederatzi musikaririk osatzen dute taldea eta bakoitzak bere instrumentua jotzen du: Leire Satrustegi (Alli) irakaslea fanfarrearen gidaritzaz arduratzen da; Idoia Garmendiak (Betelu) eta Mirentxu Eskamendik (Betelu) zeharkako txirularen doinu leunekin laguntzen dute; Adur Cobosek (Atallu) eta Urko Gorostidik (Azkarate) saxofoiak jotzen dituzte, musikari indarra eta sakontasuna emanez; Yolanda Eskamendik (Betelu) eta Maria Angeles Urrizalquik (Betelu) akordeoiarekin giro goxoa sortzen dute; Josune Ochotorena (Betelu) klarinetearen doinu biziaz arduratzen da; eta Angel Rekalde (Betelu) eta Ramon Ascaray (Gaintza) erritmoaren gidari dira, atabal eta bonboaren bidez.

Fanfarrea sortzeko ideia bat-batean



Araitz eta Betelu Eguneko une bat. Argazkia: Leire Satrustegi

“Errepertorioan 12-13 kanta ditugu, eta poliki-poliki abesti zailagoak ikasten ari gara”

jaio zen, Beteluko kaleetan dantza eta musika uztartzen zituzten une txiki batean. Hasieran bertako herritar batzuk instrumentu gutxiarekin ekitaldietan jotzen aritzen ziren, baina geroago, taldean gehiago batzeko nahia sortu zen, eta Aralar Musika Eskolaren laguntzarekin, gaur egungo fanfarrea eratzea erabaki zuten. Ondorioz, taldearen gidaritzan Leire Satrustegi jarri zen, musika tradizioan eta talde lanetan esperientzia handiko irakaslea.

Musikaren berpizkundea

Fanfarreko partaideek hainbat helburu dituzte: instrumentuak jotzeko

eskaintzen duen poztasuna bizitzea, musika ikasi edo ahaztutako teknika berreskuratzea eta herriko ekitaldietan eta kalejiretan jotzea.

Fanfarrearen errepertorioa Euskal Herriko kantu tradizionalek osatzen dute, gehienbat kalejirak, “Ikusi mendizaleak” eta horrelako abesti ezagunak. Leire Satrustegik dioenez, taldeak hasiera batean melodia errazak aukeratu zituen, musikari bakoitzaren ahalmen teknikoak kontuan hartuz. “Maila desberdinak izanik, denentzat ezagunak eta errazak diren kantuak aukeratu genituen. Orain, errepertorioan 12-13 kanta ditugu, eta poliki-poliki abesti zailagoak ikasten ari gara” azaldu du irakaslea.

Lehenengo urratsen garrantzia

Fanfarrearen lehen agerraldia azaroaren 30ean izan zen, Araitz eta Beteluko Egunean Azkarateko elizan Jonan Ordorikari egindako omenal-

ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

HOSTAL BETELU

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09

Era askotako ogiak eta gozoak

Etkez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151



Mendialdeko Azoka Ibiltarian azken egunean jotzen. Argazkia: Nerea Mazkieran



Mendialdeko Azoka Ibiltariaren azken eguneko une bat. Argazkia: Nerea Mazkieran

dian. "Gure lehen agerpena izanik, oso berezia izan zen. Hasieran jendea elizara sartzen ari zen bitartean jo behar genuen, baina denak gure inguruan gelditu ziren entzuten" gogoratzen dute musikariek. Bigarren emanaldia Mendialdeko Azoka Ibiltarian izan zen, abenduaren 1ean. Herritarrek fanfarrearen lana gorai patu zuten, eta hurrengo ekitaldian berriro entzuteko nahi hura azpimarratu zuten.

Elkarlana eta kalitatezko denbora

Lehen aipatu den modura, fanfarrea- ren arrakasta ez datza musikan bes-

"Fanfarrea ez da soilik musika talde bat, gure denbora libreko zati garrantzitsu bat da"

terik. Bakoitzaren ordutegiak egokitu ondoren, taldea asteazkenero elkartzen da entseguetarako. Gainera, fanfarreko kideek azpimarratzen dute musika egiteaz gain, elkarrekin denbora pasatzeko eta herriko giroa aberasteko egiten dutela lan: "Ez da soilik kontzertu bat jotzea, baizik eta

elkarrekin musika sortzeko prozesuaz gozatzea" adierazi dute. Musika tradizioa Betelu eta Araitz ibarreko historian beti izan da presente, baina lehenago fanfarre baten antolaketa ez da inoiz egon. Txistu eta akordeoi taldeen tradizioa festa giroan nabaria izan den arren, oraingo proiektua benetan berritzailea da.

Etorbizunerako helburuak

Fanfarreko partaideek herritarrek animatzen dituzte taldearekin bat egitera. "Norbaitek instrumentu bat jotzen badu edo ikasi nahi badu, gurekin bat egiteko aukera zoragarria du" dio Satrustegik. Ikasleek prezioa oso eskuragarria dela azpimarratzen dute, eta talde-lanean musika irakurtzen eta instrumentuak jotzen ikasteko aproposa dela.

"Fanfarrea ez da soilik musika talde bat, gure denbora libreko zati garrantzitsu bat da, elkarrekin musika jotzea maite dugulako etortzen gara. Jende gehiagok parte hartzea eta tradizio hau indartzea gustatuko litzaiguke, behintzat probatzea" gaineratu dute. Eta horretaz gain, etorkizunean, abesti gehiago gehitu eta inguruko herrietan jotzeko aukera aztertzen ari dira.

Beteluko fanfarreak musikaren garrantzia adierazten du, tradizioa eta elkartasuna uztartzen dituelako. Gainera, herritarren soinuari identitatea eskaintzen dio eta belaunaldi berrientzako inspirazio iturria zabaldu du.

CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

ERAIKUNTZAK

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Construcciones
Gañarbe

Oztegin kalea 2, Lekunberri 616 457 540
construccionesganarbe@gmail.com 636 827 846

“40 urte daramatzat Lekunberriko Klaratarren Komentuan”

Lekunberriko Klaratarren Komentuan gaur egun zortzi ahizpa elkarrekin bizi dira. Natividad Etayo, horietako bat da eta haurtzarotik hasi zuen bidaia erlijiosoa azaldu du.

Nor da Natividad Etayo?

Jaiotzez Uharteko Eguesibarkoa naiz eta nire familia ez zen bereziki fededuna, baina txikitatik sentitu nuen Jainkoaren gauzekiko joera eta interesa. Gainera, eskola publikoan erlijioa irakasten zigun apaizari eta nire Amona Epaternari esker, Fedea zer zen ikasi nuen. Jesusen Alaben ikastetxe batean ikasi nuen eta lehenengo egunetik jakin nuen bila nenbilena aurkitu nuela. Administrazioari ikasketak egin nituen arren, beste zerbait behar nuela sentitzen nuen eta Jainkoari nire bizitza eskaintzea erabaki nuen.

Nolatan barneratu zinen mundu erlijiosoan?


Gogoan dut “Hermano Sol, Hermana Luna” filma, San Frantzisko Asiskoari buruzkoa. Hainbeste hunkitu ninduen, berari buruz irakurtzean hasi nintzela eta orduan jakin nuen Jesusi erabateko pobrezian eta erabateko senidetasunean jarraitu nahi niola. 17 urterekin esperientzia erlijioso bat egin nuen Klaratarren Komentuan eta apur bat itxoitea erabaki nuen, nire ohiko bizimoduarekin jarraituz: familiarekin egoten, lana egiten, lagunekin gelditzen, ikasketen, etab. Geroago, 21 urterekin, Lekunberriko Klaratarren Komentuan sartu nintzen.

Beraz, zure bizitza hemen...


Nire bizitza otoitzean oinarritzen da, esker onez, erregutuz eta Jainkoari gorazarre eginez. Gainera, etxean lan egiten dugu eta ahizpa nagusiak eta gaixoak zaintzen ditugu. Gure jar-



Natividad Etayo Flores (Lekunberri), Klaratarren Komentuko ahizpa



Lekunberriko konbentua barrutik



Lekunberriko konbentuko kuadro bat

“21 urterekin, Lekunberriko Klaratarren Komentuan sartu nintzen”
“Ahizpatasuna indartzeko aisialdi komunitarioa egiten dugu”

dunaldia 06:30ean hasten da otoitz pertsonal eta liturgiko bloke gogor batekin, ondoren gosaria, lana, bazkaria, atsedena, arratsaldeko prestakuntza, afaria eta amaitzeko, ahizpatasuna indartzeko aisialdi komunitarioa egiten dugu, bertan gai pertsonalak partekatzeko, batzuetan txistek ere kontatzeko, etab.

Eta zure komunitatea?

Askotarikoa da, pertsonalitate desberdinekin, baina batasunean zaintzen ditugu gure desberdintasunak. Ezberdina dena sarritan baztertzen den mundu honetan, aniztasuna gure senidetasuna indartzen duen aberatasun gisa ikusten dugu hemen.

Harremanik al duzue bizilagunekin?

Gu, benetan beharrezkoak diren

“Benetan beharrezkoak diren arrazoiengatik ateratzen gara Komentutik”

arrazoiengatik ateratzen gara Komentutik, baina auzokoekin harreman gehiago izatea gustatuko litzai-guke, baina batzuetan zaila da. Hala eta guztiz ere, mezara datozenekin eta gurekin otoiz egitera hurbiltzen direnekin harremanetan gaude.

Eta Gabonak...

Gabonak jairik garrantzitsuenak dira guretzat. Jainkoa gizon egiten dela ospatzen dugu. Barruko gozamen garaia da, liturgian, gabon-kantuetan, jaiotzetan eta kanpoko argietatik harago doan jaia.

Beraz, zer eskaintzen duzue?

Gure bizitza eskaintzen dugu gizakiaren hobe beharrerako otoitz egiten. Behar duen edonor hurbildu daiteke guregana hitz egitera edo une zailtan laguntza bilatzera.



▶ AURTENGO MENDIALDEKO AZOKA IBILTARIA AMAITU DA

Mendialdeko azoka ibiltaria abenduaren 1ean amaitu zen Beteluko plazan. Eguerdian herri kirolak, dantza tradizionalak eta musikariak izan ziren, eta horrez gain, bertako elikagaiak, hala nola gazta, ezti, hestebeteak, pateak, ogia, arrautzak, garagardoa... eta inguruko artisauen zurezko, zeramikako, metalezko eta ehunezko hainbat postu izan ziren.



▶ ERROMERIA ETA OTOITZA UZTARTUZ

Intzako Santa Kruz Ermitara egin zen erromeria irailean. Mezaren ondoren, otordutxoa eta trikitixa ere izan ziren giroa alaitzeko. Abenduan, berriz, Arruizko Santa Luzia basilizara egin zen txangoa eta bertan meza nagusia izan zen egun euritsu eta hotza izan arren.

JONAN ORDORIKA MUSIKA PRODUKTOREARI OMENALDIA

Joan den azaroaren 30ean, Jonan Ordorika musika produktoreari omenaldia egin zitzaion Azkarateko herrian. Bertan, Nerea Urbizu, Miren Narbaiza, Joseba Baleztena eta Petti artistekin batera, musika eskolako helduen fanfarre talde instrumentalak, abesbatza txikiak eta helduen abesbatzak parte hartu zuten. Gainera, emanaldia, Jonanekin 1998. urtean grabatutako "Riskitin" diskako temak entzuteko aukera izan zen.

-Goiz hartako bizipenak ikusteko hemen bideo txikia: <https://labur.eus/FpdbX>





HOBEKUNTZA LANAK LEKUNBERRIN

Lekunberriko Udalak pilotalekuko aparkalekua hobetzeko obrak hasi ditu, mugikortasunaren partaidetza-prozesuaren esparruan aurreikusitako ekintzen barruan. Erabiltzen ez ziren etxolak kendu eta eremua asfaltatu ondoren, aparkalekua berrantolatze eta plaza gehiago sortzeko lanak egingo dira. Halaber, kiroldegia atzeko aparkalekua eta sarrera nagusiaren argiztapena hobetu dira, herritarren irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzeko.



MUSIKA ETA MUGIMENDU TAILERRA

1-3 urte bitarteko haurrentzako musika tailerra urtarrilean hasiko da. 4 saio izanen dira eta ikastaro guztiaren prezioa 45 eurokoa izanen da. Haurren eta gurasoen lotura afektiboak indartzeko, musikaren unibertsoarekin gozatzeko eta txikitxoek entzumenak esnatzeko formakuntza aproposa izanen da.

LARRAUNGO UDALETXERA IRISTEKO ZEBRA-BIDE SEMAFORIZATUA MARTXAN DA

Azaroaren 28an, NA-1300 errepidean Mugiron kokatutako zebra-bide semaforizatua inauguratu zen. Obra honi esker sarbide segurua bermatzen da Larraungo Udaletxera doan errepidean eta Plazaolako Bide Berdearen segurtasun-arazoa konpondu da, bidearen jarraipena lortuz. Obra hau Nafarroako Gobernuak eta Larraungo Udalak elkarrekin finantzatu dute, herritarren bizi-kalitatea eta segurtasuna lehenetsiz.
-Gehiago jakin nahi baduzu, sar zaitetz hurrengo web orrialdean: larraun.eus



- Emilio Azpirotz Satrustegi (Astitz), Mariano Burguete Compaired (Lekunberri) eta Miren Goikoetxea Arregi (Lekunberriko zinegotzia) "Elkarrekin" proiektuaren antolatzaileak.

“Boluntario sare baten bidez, Lekunberriko eta Larraungo bakardadeari aurre egin nahi diogu”

Lekunberri eta Larraungo herrietan boluntario sare bat sortzeko “Elkarrekin” proiektua osatzen ari da, adinekoen bakardadeari eta beste behar sozialei aurre egiteko. Era berean, Beteluko eta Araitzeko herritarrei ere parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi zaie, proiektuaren zabalpena eta indarra lortzeko.



Emilio Azpirotz Satrustegi, Mariano Burguete Compaired eta Miren Goikoetxea Arregi antolatzaileak

Proiektuaren garapenari buruz...

Miren: Lekunberriin “Teknoadineko Landalab” izeneko proiektuari buruzko bilera ireki bat egin zen, eta bertan, Lekunberriko eta Larraungo adineko jendearen bakardadeari buruz egindako ikerketak partekatu ziren. Hala ere, urrian, proiektua martxan jartzeko Europako diru-laguntza bertan behera gelditu zen eta ondorioz gure kabuz jarraitzea erabaki genuen eta horrela, sei herritarren artean “Elkarrekin” proiektua sortu genuen.

Emilio: Bai, beste herrietan oso garata zeuden ereduak ikusi eta horiek abiapuntutzat ezarri genituen; horrela, Bera, Lesaka eta Elizondo bezalako herrietan bilera batzuk egin

ostean azpiegitura egokiak zeudela jakin genuen.

Zer helburu dituzue?

Miren: Larraun eta Lekunberri bakarrak sentitzen diren pertsonen boluntario-sare bat eskaintzea da gure helburua, horretarako etxetara joateko zenbat boluntario dauden jakin nahi dugu.

Emilio: Eta proiektua garatzeko, boluntario-sarea poliki-poliki martxan jarri nahi dugu. Gainera, gizarte zerbitzuko langileak laguntzeko prest daude.

Zer iritzi duzue bakardadearen inguruan?

Miren: Bakardadea onartzea zaila

da. Gainera, bakardadea eta bakarrik bizitzea ez dira gauza bera.

Mariano: Adinekoen bakardadeari guztion artean egin behar diogu aurre.

Zer ekarpen egiten du boluntario-lanak?

Mariano: Boluntario izateak betetasun pertsonala eskaintzen du; dirurik ez da lortzen, baizik eta elkarlana eta laguntza pertsonala.

Miren: Zaintza, jaiotzen garenetik etengabea da eta herritarrek elkar zaintzea ezinbestekoa da. Horrek ongizate pertsonalarekin zerikusi handia du.

Emilio: Jende heldua berpizteko funtsezkoa da eta gu ere zahartzen ari gara, etorkizunean laguntza jasotzea gustatuko litzaiguke.

Eta proiektu hau beste gizarte talde batzuentzat ere izanen da?

Miren: Bai, adibidez gure inguruan jendea prest dago gaztetxoei eskolako lanetan laguntzeko.

Emilio: Bai, eta etorkinei laguntzea ere planteatu genuen.

Araitz eta Betelu proiektu honen barne daude?

Emilio: Printzipioz ez, legedia desberdina delako, baina prest gaude prozesua erakusteko eta haiei laguntzeko. Lehenengo probak hemen egingo ditugu, eta gero ikusiko dugu. Baina noski, parte hartzea gonbidatu nahi ditugu, guretzat garrantzitsuena jende arduratsu eta gogotsua lortzea da.

Beraz, hurrengo pausoa...

Mariano: Urtarrilaren 14an bilera irekia antolatu dugu Lekunberriko Udaletxean arratsaldeko 18:30etan.

Emilio: Bai, interesa duten herritarrek Lekunberriko Udaletxera gonbidatu nahi ditugu informazioa jaso, partekatu eta boluntario izaten animatzera!

2025 MAILLOPE



Errazkin
Argazkiac: Hartz Larrageta Martinez



Errazkin
Argazkiac: Hartz Larrageta Martinez



Errazkin
Argazkiac: Hartz Larrageta Martinez



2025 MAILLOPE



Astiz
Argazkia: Yolanda Juanena Berekoetxea



Astiz
Argazkia: Yolanda Juanena Berekoetxea



Astiz
Argazkia: Yolanda Juanena Berekoetxea





Astiz
Argazkia: Yolanda Juanena Berrekoetxea



Astiz
Argazkia: Yolanda Juanena Berrekoetxea



Astiz
Argazkia: Yolanda Juanena Berrekoetxea

Uztaila

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Abuztua

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Iraila

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
	1	2	3	4	5	6
	8	9	10	11	12	13
	15	16	17	18	19	20
	22	23	24	25	26	27
	29	30				

Urria

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Azaroa

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
					1	2
	3	4	5	6	7	8
	10	11	12	13	14	15
	17	18	19	20	21	22
	24	25	26	27	28	29
					30	31

Abendua

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
	1	2	3	4	5	6
	8	9	10	11	12	13
	15	16	17	18	19	20
	22	23	24	25	26	27
	29	30	31			



AIII
Argazkia: Maite Astiz



Astiz
Argazkia: Yolanda Juarena Berkeoetxea



Astiz
Argazkia: Yolanda Juarena Berkeoetxea

Ilbeltza

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Otsaila

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28		

Martxoa

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Apirila

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

Maiatza

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Ekaina

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

Araitz eta Beteluko 2024ko Kulturaldia

Ekitaldi interesgarri, hunkigarri eta sakonak izan dituzte aurten ere Kulturaldian, jende mordo bat bertaratu da deialdietara eta Araitz eta Beteluko Eguna ere giro ederrean ospatu dute. Talde antolatzaileak mezu hau idatzi du esker ona adierazteko:

ESKERRIK ASKO!!

Araitz eta Beteluko "Euskaraz bizi" taldeak eskerrak eman nahi dizkizue aurtengo Kulturaldiaren antolaketa laguntza eskaini diguzuen guztiei.

Jardueraz beteriko egunak izan ditugu, gai eta formatu anitzekoak, adin tarte ezberdinak eta gaur egun interesgarriak izan zitezkeenak aintzat hartuta; eta pozgarria da jendeak horren ongi erantzutea, herritarren parte hartzea beharrezkoa baita gure Kulturaldiak arrakasta izan dezan!! Herritarrek kultur astearekiko daukazuen atxikimendua, antolatutako jardueratan parte hartzeko motibazioa eta eskaintako laguntza dira, Kulturaldia antolatzen jarraitzeko oinarria eta babesa.

Araitz eta Beteluko Udalei, herrietako Kontzeju eta elkartei, baita bailarako eragile ezberdinei ere, eskerrak eman nahi dizkiegu, urtez-urte, gure proposamenak bideratzeko eskaintzen diguten laguntza eta prestutasunarengatik. Datorren urtean gehiago eta hobeki! Bitartean... EUTSI EUSKARARI!!!!


Araitz eta Beteluko "Euskaraz bizi taldea"



Bertsu afaria



Araitz eta Beteluko herritarrek musean jokatzeko



Bonba Bat Naiz antzerkia



Jonan Ordorikaren omenaldiaren une bat

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonos eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



Gorka Urbizu. Kontzertu Bat



Desioak, Erotika eta Sexualitatea tailerra



Gaztetxoeh graffiti tailerra



Basoko Munstroak marrazketa tailerra



Gaztetxoeh graffiti tailerra



Basoko Munstroak marrazketa tailerra



Araitz-Beteluko eguna



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
 Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
 14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
 ELKANO
 S.L.**

Industrialdea, 11
 31870 Lekunberri - Nafarroa
 Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Mari Domingi eta Olentzero, beti bezain eskuzabal!

Aurten ere herriz herri kantari ibili dira herritarrak. Etxarri, Aldatz, Lekunberri, Arribe, Astitz, Atallu, Azkarate, Betelu, Gaintza, Gorriti, Lekunberri eta Uitzit alaitu dituzte kantuz, besteak beste. Mari Domingi eta Olentzerori dagokienez, urteroko bisitak egin dituzte gurean. Bertako haurrek ere ilusioz jaso zituzten eta Eguberri egun bezperan ere, haiekin kontakizunak eta besarkadak elkarbanatzeko aukera izan zuten, bai Betelun eta bai Lekunberri. Beti egon arren ikatza jasotzen duenik, ederki etorri zaie oporralditxo etxeko gazteenei baita heldue-

LEKUNBERRI



ALDATZ



Dolua adierazteko presio soziala

Heriotza bada esperientzia unibertsala eta maiz, mendebaldeko kulturetan, bakartienetakoa. Ez baitugu norekin elkarbanatu, ez baitugu ondoan guk nahi genukeen bezala entzuten gaituen inor. Bestalde, ez horren urrutiko gizarteetan modu kolektiboan (edo kolektiboagoan) ulertzen da heriotza: ez da amaiera, bizitzaren zirkuluan fase berri baterako urratsa da.

Gurean malkoak espero dira, ageriko tristura. Eredu honetan ez sartzeak eragin dezake sufritzen ari denak ulertu gabe edo errudun sentitzea dolua modu "egokian" ez bizitzeagatik. Bada go halako presio soziala mina esplizituki erakusteko, gizakiaren konplexutasun emozionala aintzat hartzen ez duena. Dolu-eredu tradizionalera ez egokitzeak isolamendu sententzioa areagotu dezake: beren mina nahikoa ez balitz edo baliozkoa ez balitz bezala.

Esan gabe doa: gizarte mailan eta indibidualki ez dago dolua bizitzeko modu bakar bat.

Oinazea mila modutan adierazten da, denak ere zilegi. Ez daude aurretiaz idatzitako etapa itxirik ere.

Indibidualtasuna errespetatzea ezinbestekoa da, beraz: batzuek auhenaz eta negarrez erantzunen dute, beste batzuek oroimena eta ospakizuna izanen dute oinarri. Edozein modutan ere, kultura guztiak dolua beharrezkotzat jotzen dute galera gainditzeko eta joan direnekin lotura, nola edo hala, mantentzeko.



ERREPORTAJETXOA

ETXARRI



Etxarrin kantari

ARRIBE ETA ATALLU



Arribe eta Atallun kantari.
Argazkia: Ane Ubegun



Argazkia: Ane Ubegun

BETELU



Araxes ikastetxeiko ikasleak. Argazkia: Maria sotil



Argazkia: Maria sotil



Betelun goiza alaitzen. Argazkia: Maria Sotil



Beteluko Olentzero: Argazkia: Maria sotil



Mari Domingi eta Olentzero Araxes eskolan.
Argazkia: Maria Sotil

Baraibarren abadeari agurra 43 urtez lanean egon ondoren

Baraibarko San Migel parrokiari ospatu zen abenduaren 8an orain arte bertako abadea izan den Juan Mari Madozi eskainitako agurra. Madozek 43 urteko ibilbidea egin du herrian bertan, Iribasen eta Mugiron. Agur-zeremonian Miguel Larrambebere bikario nagusia izan zen, fededun ugarirekin batera.



Juan Mari Madoz abadea, fededun ugariz inguratua. Argazkia: Anne Oreja



Mikroipun lehiaketako sari banaketetako une bat



Aralar Musika Eskolako ekitaldia

Isiltzen ez den euskara

Abenduaren 2an "Jon, Jaione eta Seme Alabak" musika taldeak kontzertua eskaini zuen Lekunberriko San Joan Bataiatzailearen Elizan. Hamarnaka kide hurbildu ziren euskararen eguna ospatzera, eta hurrengo egunean Mikroipun Lehiaketako saridunak izendatu zituzten, Aralar Musika Eskolako eta Ibarberri ikastetxeko ikaslee giroa alaitzen zuten bitartean.

Beteluko irabazleak hauek izan ziren:

LH 5-6: "Eguzkia eta ilargia", Amaia Sestorain Anguera

LH 5-6: "Noiz sortu zen Arribe", Enaitz Iriarte Olano

DBH 1-2: "Izarrei begira", Nora Nazabal Otamendi

DBH 1-2: "Zergatik jaio nintzen ezberdin", Eneko Oreja Altuna

Eta Larraungo saridunak berriz, hurrengo hauek:

LH 5-6: "Behia", Enara Etxarri Urbizu

LH 5-6: "Loreak zer nahi?", Adur Goikoetxea Arevalo

DBH 1-2: "Zakuaren barnean", Unax Rodriguez Etxarri

DBH 1-2: "Plastikozko poltsa", Haizea Apezetxea

DBH 3-4: "Liburuaren desgrazia", Luar Vicente Alkorta

DBH 3-4: "56. partida", Moira Beaumont O'Donovan



"Jon, Jaione eta Seme Alabak" musika taldeak kontzertuakia

2025 urteko Udal Egutegia prest dago

Lekunberri eta Larraungo argazkilari trebeek beren talentua erakutsi dute, eta emaitza ederra izan da. Bertako egutegia hornitzeko irabazleak hurrengo argazkilari hauek izan dira: Yolanda Juanena Berekoetxea (hilabeteko argazkiaz gain azaleko argazkia ere irabazi du), Iñaki Montes Lasarte, Lucia Ayestaran Garralde, Jone Gabari Satrustegi, Juan Miguel Fernandez Juarez, Eneko Arévalo Aranguren, Jone Gabari Satrustegi, Aiora Irastorza Garmendia, Hristina Makendzhieva Stoykova eta Beatriz Buldain Etxarri. Eta adi! Aurten, abenduaren 27tik aurrera, egutegia etxe bakoitzean jasoko da, edo bestela, Udaletxera edo Mitxausenera jo dezakezu eskuratzera.



Egutegiaren azaleko argazkia: Yolanda Juanena Berekoetxea.



Agus Barandiaran eta Luar Amatriain. Argazkia: Korrontzi

Elkartasuna eta musika uztartuz

Abenduaren 28an, Korrontzik emanaldi berezia eskaini zuen Lekunberriko kiroldegian haur minbiziaren ikerketaren alde. Euskaraz abesten duen Folk musika taldea entzuteko bostehun lagun inguru bertaratu ziren eta herritarrek dantza eta txalo artean une zirraragarri bat igaro zuten. Sarreak hainbat tokitan eskuratzeko aukera izan zen, eta antolakuntza bikain horri esker, arrakasta handia izan zuen ekitaldiak.



Albaitaritza

baserriarren
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Irurtzun
www.albaitaritza.com · 948 500 343



Araxes Kirol Taldeak historia egin du

Araxes Kirol Taldeak bere historian lehen aldiz saria ekarri du etxera, izan ere, Euskadiko 4x4 Emakumezkoen Sokatira Txapelketan 3. postua lortu du. Nafarroako txapelketaren ondoren, gure neskek lan bikaina egin zuten 4x4 250kg-ko bi jardunaldietan: lehenengoa finalean sartzeko eta bigarrena azken sailkapenerako. Azaroaren 30ean burututako finalean, gogortasunez eta talde-lanean aritu ziren eta podiumean postu bat lortu zuten. Gainera, aipatzekoa da Ibarra taldeak 2. postua lortu zuela, eta bertan jokatu zuten 4 tiralarietatik 2 Araxesko neskek izan zirela. Lan honak bertako kirolarien maila, abilezia eta etorkizun oparoa adierazi du. Zorionak, Araxes!




Araxesek Euskadiko 4X4 Sokatira Txapelketan sarioa lortu ostean

Badator urteko lehen lasterketa

XVII. Araitz-Beteluko Krosa urtarilaren 19an izanen da, eta aurtien ere, sariak lortzeko kategoria desberdinak izanen dira: irabazleentzat, mankomunitateko korrikalarietarako, veteranoentzat, etab. Gainera, aurtien ere errelebo aukera izanen da eta bikote bakoitzeko bat emakumea izan beharko da. Ez galdu hitzordua eta animatu urtea korrika egiten hastera! Izena emateko epea ireki da, bertan parte hartu nahi baduzu, sar zaitez hurrengo web orrialdean:

<https://www.kronoak.com/es>



Joanes Rekalde Araitz-Beteluko krosa



Familia argazkia: Pedro Martinez

Aldabe eta Azpiroz, Txapeldun Galarretako Finaletan

Hernaniko Galarreta pilotalekuan jokaturako finaletan, Xabier Azpiroz uitziarak eta Josexo Ezkurra II.ak Binakako Erremonte Txapelketa Nagusia irabazi zuten. Bestalde, Kemen Aldabe lekunberriarra eta Aiestaran VI. bigarren mailako txapeldun izan ziren. Haraneko bi gazteek erremon-te maila bikaina eskaini zuten eta merezitako garaipena eskuratu zuten.

Erronka hirukoitza martxan da

Aurtien lehenengo aldiz, Lekunberriko, Araitz-Beteluko eta Leitzako krosetan, hiruretan parte hartzen duten kirolariek sari berezi bat jasotzeko aukera izanen dute, herri desberdinetako biztanleen elkartasuna sendotzeko eta herriko lasterketetan parte hartzea sustatzeko helburuekin. Araitz-Beteluko krosa urtarilaren 19an izanen da, Lekunberriko martxoaren 16an eta Leitzakoa apirilaren 12an.



Baserrietako iraultza

Sortetxean egonaldia egin eta gero, Maranek ekarritako kontzeptua da hau, eta asko gustatzen zait. Gure ingururako baliogarria izan daitekeelakoan garatu nahi nuke hemen. Baserrien Garai garai klasi-koa ezagutu nuen nik, herriko etxe ia denetan animaliak, bizi ohitura klasikak... Herrietan lan eta bizi egiten zen jendea. Baina aldaketa erabatekoan dabilenez mundua eta gizartea, baserrietara eta herrietan ere etengabe gauzatzen ari da.

Lan bertan ez egitearekin orain, ikuluetako espazio handiak hustu dira, inguruarekin harremana urritu da, etxebizitzetara bideratzen ari dira normala den bezala. Batzuetan iruditzen zait kaleko etxeak izan daitezkeela baina beste bista batzuekin... Sare sozialen, telebisten, pelikulen... bidez, ordu asko pasatzen ditugu ikuspegi globalera konektatuak, horrek asko baldintzatzen gaitu, aberasgarri bai, mugagarri ere. Gure bizi-zei eta bizilekuei horrek baldintzatutako forma ematen goaz.

Gure arbasoen bizimodu izan diren baserrien, etxeen, herrien eta inguruen forma ari gara birsortzen. Inguruarekin eta bizi-kideekin dugun harremana ari da etengabe eraikitzen. Inguru lane-rako eta produkziarako espazio izateren ikuspuntuak, inguru ongizaterako leku izatearen garaiari ari zaio leku egiten. Kontenplaziorako, bertan pasiatzeko, baratzetarako... Ze ardua suposatzen ditu horrek? Ze praktika? Ze erritu?.

Nora goazen jakin gabe goazela iruditzen zait, gure beharrak asetuz gure intuizioari jarraituz, gure gabeziak osatu nahian, gure ametsen txispak benetakoak diren jakin nahian. Argi dagoena da zaintza dela orain ere ardatz. Garai batean familiaren, animalien, baratzen, belardien, herriko martxaren zaintza zen bezala, gaur egun pertsonak, inguruak, lanak, ohiturak... zaintzeak duela garrantzia ere. Horrek ere egingo duelako gurea bezalako inguru eder eta berezian bizi kalitatea bermatzeak, iraultza honetan garaile ateratzeak, gu eta inguruok.



emozioen
munduan



●● Lorea Zulet (Psikologoa)

Urte berriko helburua: atsedena

**Urte berrirako helburu berri bat proposatu nahi dizuet
oraingoan: atsedena.**



Askok pentsatuko duzue orokorregia dela helburu hori, edo zuen bizitzan nahi eta nahi ezkoa, arnastea edo jatea bezala; eta egia da, baina gauza horiek bezala askotan gaisetik pasatzen da bere garrantzia. Horretatik gaurkoan nire helburua bere garrantzia aldarrikatzea da.

Hasteko, deskantsatzeko bi modu daude: atsedean aktiboa (hau agian kirolariengatik ezaguna egingo zaizue) eta atsedean geldia. Lehenengoak mentalki deskantsatzeko erabiltzen dugu adibidez: kirola egiten dugunean, lagunekin elkartzen garenean

IORTIA CLÍNICA DENTAL · HORTZ-ESTETIKA

Vanessa de Abreu Perdomo - Odontologoa Kol. Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Aitsasu: 948 467 603 · 667 661 769

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

**aitz
berri**

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologoa
Laser-depilazioa eta
depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpai-
netan
Mikroblading bekainetan

etab. Bigarrenak aldiz fisikoki deskantsatzen laguntzen gaitu: pelikula edo serie bat ikustea, irakurtzea edo lo egitea.

Goazen azken hau gehiago aztertzerara. Gaur egun, ikerkuntza askori esker badakigu loa ezinbestekoa dela osasun fisikoa, garapena, nerbio-sistema zentrala eta osasun emozionala. Baina horretarako lo hori kalitatezkoa izan behar du.

Psikologiaren aldetik beti esan da atsedena garrantzitsua dela, izan ere loa kentzea edo etetea ohiko sintoma eta arrisku-faktore bat da nahasmendu psikiatriko ugarirentzat,



antsietatea eta gogo-aldartearen nahasmenduak barne.

Fokua pixka bat xeheago jarriz, azaldu nahi nuke loaldian, zehazki REM fasean, gorputzak bizitako emozioen digestioa egiten duela. Egunean zehar gertatzen zaiguna aztarna emozional bat uzten du, handiagoa edo txikiagoa izan daitekeena. Digestio hori egitean gertaera eta emozio horiek prozesatzen dira, eta gaua ametsetan pasa baduzu seguraski digestio pisutsu bat izan da, gertaera horiek emozio zailagoak eragin ditu zugaran eta gau bat baina gehiago iraun dezake prozesuak.

Deskantso hori faltatzekotan ger-



taera horien emozioak ez dira ongi barneratuko eta ezinegona gehiago luzatu daiteke. Horregatik ere, lehendik gertaera horietara dauden emozioak identifikatzen baditugu, lana erraztuko diogu gure inkonzienteari.

Espero dut honekin atsedenen garrantzia argi utzi izana eta urte berriko helburuetako bat izateko konbentzitu zaituztela. Urte berri on denoi!



BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com



German Lasarte
HARATEGIA
Aralar kalea 8
Lekunberri
948504157



SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atalla



urrutia
enea


etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

● ● Juanmari Irastorza Garaño (Lekunberri), EH Bilduko zinegotzia.

“UEMAk onartu du Lekunberriko udalaren eskaera”

Juanmari Irastorza Lekunberriko Udaleko euskara arloko EH Bilduko zinegotzia da. Euskaingintzako eragileek eta ikastetxeak, besteak beste, euskararen erabilera eta normalizazioan aurrerapausoak eman ahal izateko, euskararen ordenantza bere osotasunean betetzeko zegoen beharrari udaletik erantzuteko neurriak eta tresna bideratzea egon da.



28

Zergatik erabaki da Lekunberriko Udala UEMAn sartzea?

Lekunberri herri euskalduna da, baina euskararen erabilera atzera pausoak sumatu dira azken urteetan. Horrek bere isla dauka hezkuntzan, aisialdian, kulturean... eta horrexegatik, arazo horiei erantzuteko UEMAK sortzen dituen aukerak aztertu genituen Euskara batzordean. Ikastetxeko zuzendaritzatik ere, euskararen arloa indartzen laguntzeko eskaera bideratu zuten udalera. Honekin batera, 14 urte pasa dira euskararen udal ordenantza indarrean dagoenetik, baina orain arteko gobernu taldeek ez dute pausorik eman bere osotasunean bete dadin. Horrek, Lekunberriko euskaldunak bigarren maila batean kokatzen gaitu hizkuntza eskubideei dagokienez.

UEMAk, udalerrri euskaldunok osatutako sare zabala izanik, eskarmentu handia eta baliabide ugari eskaintzen ditu: hezkuntza proiektua martxan jarri, herritarren kontzientziazioan eragin, udaleko eguneroko dokumentu eta proiektuak euskaraz ere sortzeko baliabideak, abian dituen hainbat

“Lekunberri herri euskalduna da, baina euskararen erabilera atzera pausoak sumatu dira azken urteetan”

proiektu gurean ere txertatu, etab. Hau dena, herritarrentzako onura da, euskararen normalizazioan aurrerapausoak ematea. Udal Gobernu honentzat, egoera aldatzea ezinbestekoa da eta UEMAK ordenantza bere osotasunean betetzen lagunduko digu.

Lekunberriko Taldeak erabaki honen desadostasuna adierazi du. Zein da udalaren iritzia?

Uste dugu ez dutela gaia behar bezala aztertu. Legealdi honetan, nahiz bietan ordezkaritza izan, Euskara Batzordean edo Euskara Mankomunitatean ez dute parte hartu. Nafarroako Gobernu Euskarabidea eta UEMAREN artean sinatutako hitzarmenaren arazoak eta onurak azaltzeko tekni-

kariekin egindako bilerara ere gonbidatuta zeuden baina ez ziren azaldu. Batzarrean, dirutza ordainduko genuela aipatu zuten, baina Nafarroako Gobernu Euskarabidea eta UEMAREN artean sinatutako hitzarmenaren zehazten den bezala, udalei dagokien kuotaren %85 Euskarabideak bere gain hartzen du, hau da, Lekunberri 1.130€ ordainduko ditu urtean.

Hamalau urte izan dituzte euskararen udal ordenantza bere osotasunean betetzeko eta ez dute egin.

Orain aukera izango dute UEMAN parte hartzeko, ordezkaritza izango dutelako, eta espero dugu gai honekin orain arte izandako posizioa aldatzea.

Nola saiatuko zarete adostasuna lortzen herritarren artean?

Lekunberri, haran eta eskualde euskaldun batean kokaturik dago, herri euskalduna da. Hezkuntza eredia ere euskalduna dugu gurean (D eredia). Orain 14 urte adostasun osoarekin onartu genuen udal ordenantzak horrela dio: *“Euskara, Lekunberriko hizkuntza, gaztelania bezala, Lekunbe-*

LEKUNBERRI

Ongi etorri UEMARA!



UEMAko ekitaldiko une bat. Argazkia: Juanmari Irastorza

“Ez litzateke arazorik egon behar UEMATik etortzen diren programak garatzeko”

rriko Udalaren eta udalerriko hizkuntza ofiziala da. Dena dela, euskara eta gaztelania, biak hizkuntza ofizialak izanik ere, oso urrun daude berdintasun sozialean egoteko, euskarak urteetan jasan duen bazterketaren ondorioz. Hortaz, Lekunberriko Udalak tratamendu berezia eta lehentasuna emanen dio euskarari.”

Abiapuntua hau izanik, guk udal eredu euskaldun batean sinesten dugu, gaztelania bezalako beste hizkuntza ofizial batekin elkarbizitzan oinarritutakoa. Euskaldunak bigarren maila batean egoteari utzi eta guztion hizkuntza eskubideak bermatzen diren eredu bat eskainiz gero, ez litzateke arazorik egon behar UEMATik etortzen diren programak garatzeko.

**Zeintzuk dira euskararen erabilera-
ren inguruan udalaren lehentasunak
eta UEMArekin elkarlanean garatuko
dituzuen proiektu nagusiak?**

Uste dugu hezkuntzari garrantzi handia eman behar zaiola. Ibarberri eskolako zuzendaritzak bere kezka

azaldu digu dagoeneko, ikasleen euskara maila eta erabilera beharantz doalako. Gai hau egiturazkoa da eta UEMArekin batera Hezkuntza proiektua garatzea lehentasuna da. Honekin batera, euskaren ordenantza betetzeko plangintza garatuko dugu, aisialdirako neurriak, merkataritzako eragileekin lanketa... gai hauek guztiak ere jorratu behar ditugu UEMArekin elkarlanean.

**Zer erronka nagusi ikusten dituzu
Lekunberriko euskararen sustapenean?**

Lehen ere aipatu dut, gaztetxoekin egin beharreko lanketa da erronka nagusia. UEMAK, udalerriko euskaldunon sarea izanik, aurretik egindako lanaren emaitzak bazkide guztion eskura jartzen ditu eta lagungarri izango

“Gaztetxoekin egin beharreko lanketa da erronka nagusia”

zaizkigu. Euskararen normalizazioan aurrerapausoak emateko baliabideak eta laguntza eskainiko dizkigu udalako eguneroko administrazio lanean, aisialdian, hezkuntzan, kultur zein kirol eskaintzan ere.

Beraz, taldearen izenean...

Taldearen izenean esango nuke aspaldi beharrezkoa ikusten genuen pauso bat emateko gai izan garena eta ilusioz beterik hartzen dugula UEMAn sartzeak irekitzen digun eszenatoki berri hau. Euskararen normalizazioan aurrerapausoak ematen jarraitzeko ezinbesteko bidelaguna izango du Lekunberriko Udalak UEMA hemendik aurrera.

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

BIDEGOXO JATETXEA

Jauntxak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Granja Martenea, GAVIÑA, Nafarroa
Tda. 649 677 857 • Iruñea 640 311 087
Malloak.com • info@malloak.com

IDIAZABAL



Ttuturre K.E.ren urteko batzarra

Azaroren 23an egin zen etxeko Kirol Elkartearen urteroko batzarra, eta bertan, aurtengo kontuak, aurrekontua eta egutegi berria onartu zen.

Gainera, urtero bezala, urtarrilaren 31ean kirolaren inguruko hitzaldia antolatu du elkarteak; Itxaro Zabaleta nutrizionistak energiaz beteriko elikadura osasuntsuari buruz hitz egiten du eta Egoitz Carrion prestatzaile fisikoak, mendia, osasuna eta egoera fisikoaren hobekuntzak azalduko ditu. Ekitaldia Gabari Gune Irekian egingen da, arratsaldeko 19:00etan. Animatu parte hartzera eta kirol munduan murgiltzera!

Hona hemen 2025 urteko egutegia:

Urtarrilak 26

1. Etapa- Bortziriako Itzulia
Arritxulegi mendatea – Bianditz – Pagolleta – Izu - Arantza

Otsailak 23

2. Etapa- Bortziriako itzulia
Arantza – Ekaitza – Mendieder – Mendaur – Apaola – Sunbilla
Ibilbide motza: Arantza – Bulatxiki – Apaola (N-121)

Martxoak 30

3. Etapa- Bortziriako Itzulia
Sunbilla – Aizkolegi – Etxebertzeko borda – Eskisaroi lepoa

Apirilak 27

4. Etapa- Bortziriako Itzulia
Eskisaroi mendatea– Zentinela – Arxuria – Lizarrieta mendatea

Maiatzak 26

Fraideen Iturria - Moncayo (2.314 m.)
Ibilbide motza: Fraideen Iturria – Moncayoko Andre Mariaren Santutegia

Ekaina 29

Gabardito. Bisaurinera igoera
Irailak 12, 13 y 14
Aste buruko irteera Pirineora (Zehazteke)

Urriak 27

Erroimendi mendatea- Orhi (2.019 m.) – Larrañe portua
Ibilbide motza: Gartxot Txenda Izaltzutik

Azaroak 30

5. Etapa- Bortziriako Itzulia
Lizarrieta mendatea – Ibantelli – Lizuniaga – Larhun – Ibardin mendatea

Abenduak 14

6. Etapa- Bortziriako Itzulia
Ibardin mendatea– Manddale – Endarlatza – Endara – Arritxulegi mendatea

▶ AGENDA

URTARRILA

- 3- 11:00 Kobazuloaren misterioa LH bosgarren eta sei-garren mailako haurrentzat jolas-zirraragarria. Ibarberri ikastetxean.
- 5- 18:30 Errege Magoak Lekunberriko Aralar kaletik Alde Zaharrera.
- 9- Plazaola Partzuergo Turistikoaren 30. urteurrena.
- 11 - Uitziko inauteriak: erronda eta festa.
- 14- 18:30 "Boluntario izan nahi? Behar zaitugu, behar gaituzu", boluntario lanetan aritzeko prest dauden herritarren bilera, Larraungo eta Lekunberriko Udalen babesarekin eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen laguntzarekin. Lekunberriko Udaletxean.

19- XVIII. Araitz-Beteluko Krosa. 10:30 haurrak eta 12:00 helduak. Izen-ematea zabalik:
<https://www.kronoak.com/es>

26- Ttutturre K.E.-k antolatuta, Bortziria Itzulia ibilbideko lehen etapa: Arritxulegi mendatea – Bianditz – Pagolleta – Izu – Arantza.

31- 19:00 Ttutturre Kirol Elkarteak antolatutako hitzaldia. Egoitz Carrion eta Itxaro Zabaletarekin. Gabari Gune Irekian.


**residuos de navarra
nafarroako hondakinak**



Etorkizun zirkularra eraikitzen dugu Construimos un futuro circular




ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro
eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARMITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotaidea 19,
Lekunberri



AURTUKO TXIKI
PERUKOI ESCOLA
www.martillotxiki.com
679 938 016

ARAITZ- BETELUKO

XVIII.KROSSA

01/19 12H + 10:30
HAURRAK / NIÑ@S

 **KRONOAK**

7,7KM

**ERRELE
BOAN**

GUTXIENEZ NESKA 1
MÍNIMO 1 CHICA

ABSOLUTOAK

1º 120 €
2º 80 €
3º 60 €

**S
A
R
I
A
K**

HARANEKOAK

1º 50 €
2º 40 €
3º 30 €

- + BETERANOAK / VETERANOS
- + LEHEN BIKOTEA / PRIMERA PAREJA

ANTOLATZAILEA **+ INFO**

KIROLMANKOMUNITATEA@GMAIL.COM

649 20 53 10



ARAXES

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra

